

Etikaren diskurtso hanka motzak

EAJ ETA PSE-K bultzatutako mozio *etikoek* aurrera jarraitzen dute, baina dagoeneko ezer ez da zitekeena izango, areago Ino Galparsoro Arrasateko alkatearen espetxeraztearen ondoren. Etika, joko politiko eta boterearen nahasketa dosi handia zuen jeltzale eta sozialistek udal-letxeetan jarritako ekimenak eta oraingoz bideragarritasun eskasa dutela ikusi da. PSE-ko buruzagiek ahaleginak eta bi egin ditzakete botere banaketaren diskurtsoa gizarteratzeko, baina beren boto emailen artean ere ez da sinesgarria. Denok dakigu zergatik espetxeratu duten Galparsoro eta horrek, berriz ere urratzen du zuzenbide

estatua. Bi akats larri dira hor, bata eskubide urraketa bera; bestea, jakinik hala dela, ezker abertzalea zokoratzeko estrategiaren barruan urraketa onartzea.

ETIKAREN DISKURTSOA era berdintsuan maneiatu du Mugarik Gabeko Kazetarien elkarteak Euskal Herrian kazetariak bizi dituzten mehatxu eta arriskuak direla eta atera berri duen txostenean. Europako Batasuneko herrialdeen egoera deskribatzen du, eta Euskal Herrikoaz aritzean, ETAk mehatxatu eta erasotutako hainbat kazetarien testigantza jaso du. Alde horretatik, halako erakunde bati dagokiona

egin du, logikoa. Estatuaren errepresioa sufritu duen kazetari eta medioen errealitatea ezkutatu egin du, ordea, eta edozein erakundek halakorik egitea desegokia bada ere, are larriagoa da errealitatearen ezkutatzeko hori kazetariak egindakoa bada. *Egin, Egin Irratia, Ardi Beltza* eta *Egunkaria*-ren itxierak, edo preso diren Javier Salutregi eta Teresa Toda edota *Egunkaria* auziko kazetarien errealitatea jasotzen ez duen txostena hanka motza da erabat. Larriagoa ere egin du, ordea, elkarte honek, kazetari batzuek ETAREN aldetik jaso ditzaketan mehatxuen errudun egiten baititu *Gara* eta *Berria*-ko kazetariak.



ATALAIA JATETXEA

Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun
 Tel: 943 635518 • Faxe: 943 638718
 e-posta: info@hotelatalaia.com
 web orria: www.hotelatalaia.com